

Astoa eta Tsakurra

Asto bat zamatua
Alport's andiak
Zijoan feriera
Nagusiarekin.
Etseko artzanorak
Naiz bai, naiz ez deitu,
Beti-beti ondotik
Oi zion segitu.
Ibili ziranean
Irubat legoa,
Gure nagusi orrek
Sentitzen du loa.
Gelditzen du astoa
Bide bazterrean,
An bazkatzen dabilen
Lo egin artean.
Etziten da soroan,
Asten da zurrungaz,
Oroitu gabetanik
Astoaz, ez zamaz.
Bazebilan astoa
Soroan bazkatzen,
Eta tsakurrak zion
Atzetik jarraitzen;
Baiña nola astoa
Zan guztiz andia,
Atzeman ezin zion
Ortaz janaria.
Orduan bi eskuak
Gorontz altsaturik,
Asitzen zan ibiltzen
Tsutika jarririk,

Eta asto gaiztoak
Altšarik bizkarra,
Egiten zion beti
Burla eta farra,
Esaten ziolarik:
¡Au bai komedia!
Dirudik itsuaren
Tsakur dantzaria;
Eta onek esaten
Dio astoari,
Piškato bat, maitea,
Berontz makurrari.
Onela dabiltzala
Poliki jostatzen,
Leoi bat basotikan
Zaie ateratzen.
Artzanora lasterka
Badijoa andik
Utziiten duela an
Astoa bakarrik:
Onek egiten dio
Ari deadarra,
Ark berriz urrutitik
Egiten du farra.
Asto gaišoa il zan,
Eztago dudarik,
Eskarmentu eder au
Guztioi utzirik.
Besteak laguntzea
Guri nai badegu,
Guk ere besteak
Lagun beaiegu.

ITURRIAGAK.

PERU TA TŠOMIN

—Berez ona danak Tšomin, ganera urteten dau; tsarra urrindik agertuten da. Tsarrak bide tsarretik egin gura dauz opa dabezanak ta ezin leike aurkitu onik beragan ez asieran, ez amaitueran, ez azkenengoko daukenean; tsarrak deadar asko, oskilkeri asko, azpikeri asko daroaz beragaz; onak isiltasuna, moduztasuna, otzantasuna.

—Peru, zetara datorren ori esan egidazu ta, dana dala egia izan arren, obeto aituko dot.

—Igaro dan domekako iazoeretara begiratu egizu ta orra...

—Ointse bai eztodala aituten: igaro dan domekan nun dago ba *onik*?

—Inun ez.

—¡Ba orduan zegaitik ataraten dozu ona kalera guk berba ori aitu bear dogun legez artu ezkeror? ¡garaitu ebenetan ikusi gura ete dozuz ba isiltasuna, moduztasuna ta otzantasuna?

—¡Garaitu diñozu? ¡garaitzailerik egon zan ala?

—Egitez bai, ta olan izan ezkeror.

—Tšar bitik batek urten bear izan ezkeror...

—Ta ona nun dago ba?

—Aurreko eleziñoetan urten eban.

—Ta onetan urten baleu?

—Tsarrak sustraian botaten dauz *onen* ondoan, ta aren serbitzaileak zainduten badabe, adar asko botaten dauz, ta ona, an ondoan egon arren, ezta ikusten. Danak an dagoala dakie; baiña bere edertasuna eztabe ikusten. Eta ezegizu uste aren adarrak ta orriak asko ta andiak izan arren sustrai sendo ta gogorrek daukazala, ez, ozta ozta dago zutunik, baiña dago.

Zek urteten daben andik badakizu: adar batzutatik abere antzekoak, beste batzutatik diru zorroak borondateak erosteko. Batzuk, pristia zapaltzen danean egiten dabezan antzeko azkenengoko ikara itzaltsuak egin ebezan, jaurki bera legezko zer batek zapalduta!: besteak, egin leike bear ugari ta zaindu ondo euran adarrak, bada eztabe emengo bear diran beste diru zorro, *onak* artuko daben indarra, erosteko. Lengo eleziñoetan eguzkia sartu zan zugatz tsarren adarretatik zear, ta batzuk ikusi ebezan aren margo ederrak. Orduan esan eben jorra ze zugatz ederra dagoan or! adar tsarrak ikara egin ta alditšu baten zikatu zirean. Batu gaitez, esan eben orduan zugatz ederra ikusi ebenak, ta iarraitu ta zaindu daigun, aundi egin ta danak ikusi daien. Igaro dan domekan erakustea gura izan eben batzuk, baiña geienak esan eben: Ez, lenengo ikusi daiela alboan daukan zugatzen tsartasuna.

—Eta ikusi be egin da Peru.

—Eta ori ikusita bestearen edertasuna ta ontasuna ¡ze edertasuna ta ontasuna izango dira! *Centro Vasco*-koak zainduko dabe ta berak ia daukezan sustrai sendoakaz ¡ze adar gogor, orri eder ta lora politak botako dauz!

—Urte askoko izan daitela bera zaintzeko, gure onerako. Egun batzuetan miña zaintzaile. Peru.

—Pozarren daukat neure biotza, Tšomin, ta domekan gure Ama Begoñako Eleizan bere zabaltzerako egingo daben elizkizuna, ikusgarria izango da.

—*Orfeon Euskeriak* eresiko dau beste berrogetamar soñulari edo iotzailearen laguntasunaz, Eslabaren *mi bemol*-eko meza andi ta ederra.

—Eta Tšomin, amaituteko, aren irurogei, estarrietatik Done Inazio edo Inakiren soñua eresten dabeanean eurak egiten daben bizitasun ta euskalduntasunagaz ¡zer iazoko da entzuleen biotzetan?

—Gero Berrizko ezpata-dantzariak ikusi eragingo deuske euren bizkortasun, bizitasun ta sendotasuna, ta gomutau eragingo deuskuez gure ugazabarenak. Ordu batetan batuko dira bazkaritara.

—Bedeinkatuak izan daitezala ta eurak gordeten doiezan zugatzaren adarrak Euskalerra guztia euren kerizpean artu daiela.

OTZANDIO.

ETSALDEKO IAKITURIA

I

INKESAK ZELAN KENDU

Inkesa edo zizpuruak larri-orduetan, naibageen ondorik geienean agertuarren, naibage barik bere batzuetan eukiten doguz. Inkesa onek kenduteko osagarri bat asmau dau Alemania-ko osagile Tucher-ek. Arrautza gorringoa, *azukrea* ta ospin edo *binagrea* nasta nasta egiteko diño; ta onetarikoše kolarakada bat geienentzat naikoa izango dala diño inkesaak kenduteko; eta bat naikoa izan ezik, bi edo iru artu eileikez.

II

BIGUNALDIETARAKO OSAGARRIA

Belarri ta begi minbera asko dagoz, da, eurai kalte ez egitearren, *pirripirri* edo *berazkoa*-ren orde, bigunaldia ipiñi dogu irakurburutzat.

Ondo-eztšu au kenduteko osagarri on bat ona emen: edontzi edo *kopa* bat urez bete beite; ezarri bekioz urari sei edo *zazpi* *laudano*-tanta edo tšiztil, da ordurik ordura artu beite onetarikoše koilarakada andi bat. Gizakume edo *persona* gazteentzat lau edo bost tanta naikoa izango dira.

Laudanoa kontu andiaz erabilteko gauzea da ta dakienari nastau eragitea izango da onena.

III

TŠAKUR AMURRATUEN EZAUPIDEA

Tšakurrak amurratuta dagozanean baiño bestetan usegi edo aginka egingo ezpalebe, ezkendukez berba oneek emen ezarriko; baiña asarre direanean bere badakie grausk egiten, da asarrea ta amurrua eztira bar diñak: asarrez egiñiko grauskadeak eztakar atze tšar tšarrik; amurruz egiñikoaren atzetik eriotza ikaragarria laster etorten da; ta ondo da iakitea tšakurren aginkada edo ozkadea noz dan asarrezkoa ta noz amurrukoa. Ona emen Petit osagileak azalduko ezaupidea. Okela-zati bat igortzi beite tšakur aginkariaren oi, agin da zakatzean; da okela-zati au emon bekio beste tšakur bati. Onek iaten badau, ezaun da lenengo tšakurra amurraturik ezegoana; iaten ezpadau, baegoana agiri da.

Onetarako, tšakur amurratutzakoak ilda egon bear dau bestela nok areri oi-agin-zakatzetan ukutu?

Eva-ren alabaak

Irakurkizun au ezta izango emakumen gogokoa, gure ustez; gizonen onerakoa bai beintzat. Gizon askok gizartean iazo edo gertaten iakezan gauza guztiak emazteari esateko oiturea dauke. Gauza asko, geienak, esatea oitura ona da, batetik gizona azazkaten (1) dalako, ta bestetik emakuma iakinguraak baketan eukiten direalako; baiña gauza guzti guztiak esatea zer dan, urrengo gertaera edo iazoeraak zeaztuko dabe.

Viena deritšon uri andian errizain (2) batek, ondo apalduta gero, emazteari zeero zeero azaldu eutsan urrengo egunean egin bear eben lapur-eiza edo arrapate on bat. Emazteak gau atan, entzuniko barri ta asmoak eragin da erabili ta gero, erabagi gaizto donga bat artu eban. Al eban baiño diru-eralte edo *gasto* geiagokoa zan bera: kapela ta osterantzeko apaingarritan denda askotan eukazan zoorrak. Eta zoor one-tšek garbituteko usteaz ots egin eban urrengo egunean, senarrak aitaturiko lapur baten etšean. Onen eskutik bear eban beste diru artu ebanean, senarragandik entzuniko era beratan agertu eutsazan lapurrari ekizan barri guztiak. Lapurrak, au iakiñik, ige-sari emon eutsen: da errizaiñak eldueran, etšea u-tsik egoan, eurak buruko min barik.

Emazteak amesetan egoala, usterik gitšien ebanean, agertu eutsan senarrari egiñiko gaiztakeria.

Onen antzeko iazoera asko ta asko ezautu izan dira aspaldiko urte onetan. *Politika*-ko gauzetan iñok uste daben baiño artekotasun geiago dauke gaur-e-

guneko emazteak. Oraintsu Ministro baten emazteari agertu iakon diru-tratulari bat, eta diru-piño andia es-fiñi eutsan, senarragandiko barriak (politikazko barriak) berari bakarrik iakin eragitearren. Lenengotan emakumeak guztiz asarraturik ezetz erantzun eutsan; baiña diruak zulatu ezin leian atšik eztago ta makurtu ta beraatu zan emakumea. Diru-tratulari onek ordutik aurrera, noizean bein albista bat edo beste emakuma onegandik iakinda, garatz (1) asko ta irabaztetsuak egin ebazan. Alakoren baten senarra, oso konturatu ezarren, emaztearen peko ta susmoz, emazteari egi-modura guzur andiak esaten asi zan: onako ta olako asmoak *gobernuak* erabilzala, au ta bestea egingo ebela. Emazteak tratulariari barri onek emoeran, tratulari edo garazdunak beti lege salerote andiak egin ebazan; da geien irabazi bear ebala uste ebanean, lur io eban da betiko ondatu zan.

Orain esango dogun iazoera au arrigarriagoa da. Italian diru-etšagun edo *bankero* bat gaizkin batzuk il eben. Iñok ezekian nortzuk zirean gaizkin eraile oneek. Iñaren aideak albistarietan iragarri eben, eraile nor zan agertu eianari onenbeste diru emongo eutse-la. Diru-etšaguna il ebanaren emazteak, au irakurri ebanean, ordurarte senarra maite izanarren, diruak itsututa, iñaren aideakanatu ta agertu eban nor zan eraile. Ezebazan luzaroko izan diruok. Andik lasterrera (zelan eztakigu) il zan emakuma donga au. Diruagaitik barik zuzentasunagaitik beren senarra salatu izan baleu, Esparta-ko emakuma biotz andikoen ondorengotzat euki ta goratua izango zan auzua.

Azkenez erakutsi daigun Rusia-ko kondesa bategaz iazo zana. Ministro baten emaztea zan: senarrakitsu itsurik maite eban, gauzarik isilpekoenak esaten eutsazan, ezeukan emazteak iakin bagako gauzarik. Eta gizagaisoak ezekian amabi urtetan Gobernuoko asmorik arduratsuenak erbestekoai diruaren diruz salduten bizi izan iakola emaztea. Gobernuak salduta bizi zana baekian, nor zan saltzaiñea ez; ezta iakiteko alegin guztiak eginda bere. Bein kondea estu artu eben, da zin edo *iuramentu* eragin eutsen ea iñori ondo-bearrean (2) esaten eteeutsan berak ekiana. Kondeak orduan baietz erantzun eban: emazteari ekian guzti guztia esan oi eutsala. Beingo beingoan, au iakinda gero, lakirioan iausi zan kondesa doilorra.

Rusian onelango gauzen atzea beti izaten da erdi-bardiña. Kondesea Siberiara bialdu eben, da antše il zan. Kondeak, arazo ta bizibidea itšita, erbestera betiko ioan bear izan eban.

Senarrak: ikasi zelan bizi. Dalila lango emazterik euki nai ezpadozue, Sanson lango kirten koko buru bagakoak etzaiteze izan.

B-rekiñ

Bein Baratza Batean
Bei Bat Bilaturik,
Belar Berde Berria
Bazkatzen Bakarrik,
Baserritar Bat Bere
Buruz Beroturik,
Bialtzera Beitšoa

(1) *Azazkan*, desahogarse.

(2) Erderazko *policia*.

(1) *Negocio*.

(2) *De buena fe*.